

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



INSTALATZE ETA
MANTENTZE LANAK

INSTALAZIO TERMIKO ETA FLUIDODUNAK MANTENTZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

1. modulua: Sistema Elektrikoak eta Automatikoak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



INSTALATZE ETA
MANTENTZE LANAK

INSTALAZIO TERMIKO ETA FLUIDODUNAK MANTENTZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

1. modulua: Sistema Elektrikoak eta Automatikoak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Argitalpena: 1., 2010eko urtarila.

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Egileak: Enekoitz Zatika Elorza
Oskar Soto Fernández

Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KUALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta maketazioa: TRESEDETRES

Lege-gordailua: BI-3336-09

Orduak: 198
Unitateen kop.: 8

AURKIBIDEA

	UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	05 or.
0	0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena.	06 or.
1	1. unitate didaktikoa: Kontzeptu elektrikoaren analisia	08 or.
2	2. unitate didaktikoa: Automatismo elektriko kableatuen konfigurazioa	15 or.
3	3. unitate didaktikoa: Automatismo elektriko kableatuen muntatzea	19 or.
4	4. unitate didaktikoa: Bero-instalazioetarako erregulazio eta kontrolko sistemak muntatu eta mantentzea	28 or.
5	5. unitate didaktikoa: Hotz-instalazioetarako erregulazio eta kontrolko sistemak muntatu eta mantentzea	36 or.
6	6. unitate didaktikoa: Sistema automatiko programagarriak konfiguratzeko eta muntatzeko	44 or.
7	7. unitate didaktikoa: Sistema automatiko programagarriak programatzeko eta abian jartzeko	49 or.
8	8. unitate didaktikoa: Instalazio termiko eta fluidodunetako telekudeaketa-sistemen analisia	55 or.



Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK									UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4	M5	M6	M7	M8	M9		
									UD0: Moduluaren aurkezpena	1 h
X	X								UD1: Kontzeptu elektrikoaren analisia	27 h
X	X								UD2: Automatismo elektriko kableatuen konfigurazioa	10 h
X	X	X	X						UD3: Automatismo elektriko kableatuen muntaia	30 h
		X	X	X	X				UD4: Bero-instalazioetarako erregulazio eta kontrolako sistemak muntatu eta mantentzea	30 h
		X	X	X	X				UD5: Hotz-instalazioetarako erregulazio eta kontrolako sistemak muntatu eta mantentzea	30 h
						X	X		UD6: Sistema automatiko programagarriak konfiguratzeko eta muntatzeko	20 h
								X	UD7: Sistema automatiko programagarriak programatzeko eta abian jartzeko	30 h
						X	X	X	UD8: Instalazio termiko eta fluidodunetako telekudeaketa-sistemen analisia	20 h
GUZTIRA										198 h

1. multzoa: Makina elektrikoak eta horien sistema osagarriak hautatzea
2. multzoa: Elikadura eta kontrolako instalazio elektrikoaren konfigurazioa
3. multzoa: Erregulazio eta kontrolako sistemak muntatzea
4. multzoa: Erregulazio eta kontrolako sistemen funtzionamendua egiaztatzea
5. multzoa: Sistema automatikoetan matxurak aurkitzea
6. multzoa: Sistema automatikoetako matxurak konpontzea
7. multzoa: Sistema automatiko programagarriak konfiguratzeko
8. multzoa: Sistema automatiko programagarriak muntatzeko
9. multzoa: Sistema automatiko programagarriak abian jartzeko



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA.

Iraupena: Ordu 1

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Moduluaren garapenera plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.
2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.
3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.
4. Moduluaren unitate didaktikoen arteko eta moduluaren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.
5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez.

EDUKIAK		Multzok								
		1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 									
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak, eta moduluarekiko lotura. • Moduluaren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluaren helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 									
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluaren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 									



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duzun edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1. Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 min.	X	X	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.
J2. Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 min.	X	X	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu.	Ikasleek moduluen gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak. Informazioa duten fotokopiak.
J3. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 min.	X	X	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluen gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.	5	30 min.	X	X	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen	Galdera sortak.



				sorta baten bidez.	errealitatera egokitzeko aukera emango dio irakasleari.	
OHARRAK						
<ul style="list-style-type: none">Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa bamean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.						



1. unitate didaktikoa: KONTZEPTU ELEKTRIKOEN ANALISIA

Iraupena: 27 ordu

IE1: Makina elektrikoak eta horiek elikatze, babesteko eta kontrolatzeko sistemak hautatzen ditu, eta eskakizun teknikoak aztertu eta sisteman duten funtzioa deskribatzen du.

IE2: Erregulazio eta kontroleko sistema kableatuak konfiguratu eta, horretarako, teknologien arabera (pneumatikoa, hidraulikoa, elektrikoa) behar teknikoak aztertzen ditu, eskemak marrazten ditu eta araudia aplikatzen du.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Elikatzeko sistemetako eta makinetako dokumentazio teknikoa hautatzea.
2. Instalazio termikoetan eta fluidodunetan erabiltzen diren motor elektrikoak hautatzea.
3. Elikatzeko sistemen eta makinaren funtzionamendu-parametroak kalkulatzeko.
4. Osagaiak hautatzeko magnitudeak finkatzea (magnitude elektrikoak, pneumatikoak, hidraulikoak, eta abar).
5. Oinarriko sistema elektrikoetako eskemak marraztea.

EDUKIAK		Multzoak								
		1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Makinak eta sistema osagarriak identifikatzea, deskribatzea eta horien aplikazioak finkatzea (korrante zuzena eta altemoa). • Funtzionamendu-parametroak neurtzea eta egiaztatzea. • Behe-tentsioko instalazio elektrikoaren araudia aplikatzea. • Eroale elektrikoak hautatzea. 	X X	X X							
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema monofasikoak. Sistema trifasikoak. • Osagai pasiboak: erresistentziak, bobinak eta kondentsadoreak. • Transformadoreak: motak eta ezaugarriak. • Korrante zuzen eta korrante altemoko motorrak. Motak, ezaugarriak eta aplikazioak. 	X X X	X							
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Eskemetan erabilitako sinbologia ezagutzearen garrantzia baloratzea, irudikatzen den sistema behar bezala ulertzeko. • Neurtzeko eta egiaztatzeko aparatuen kontserbazioa zaintzea. • Ezarritako denborekiko errespetua. • Segurtasun-arauak zuzen aplikatzeko interesa. 	X X	X X							



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J0 UDaren aurkezpena.		0,5 h	X		Irakasleak unitatearen helburuak, edukiak eta jarduerak aurkeztuko ditu.	Lortu beharreko ikaskuntzako helburuen eta emaitzen ikuspegi argia izateko.	Programazioa.
E1 Aurretiatzko jakintzei buruzko hasierako ebaluazioko berariazko proba.		0,5 h		X	Ikasleek banan-banan erantzungo dute galdera sorta.	Ikasleen jakintzak hautemateko. Helburuen eta nork bere aurretiatzko jakintzen jakitun izateko.	Galdera sorta.
J1 Printzipio eta magnitude elektrikoiei buruzko azalpena eta erakustaldia: <ul style="list-style-type: none"> - Elektroteknikaren hastapenak. - Printzipio elektrikoak. - Magnitude elektrikoak. - Joule-ren legea. - Ohm-en legea. - Zirkuitu elektrikoak. 	3	3 h	X	X	Irakasleak magnitude elektrikoak eta dagozkien unitateak azalduko ditu. Arbelean hainbat oinarritzko ariketa egingo ditu. Ikasleak, eman zaizkion apunteen laguntzarekin, materiala irakurriko du eta ariketak interpretatuko ditu. Fase honetan, komeni da zalantzak sortu ahala argitzea.	Oinarritzko magnitude elektrikoak ezagutzeko.	Apunteak, arbela, Power Point
J2 Magnitude eta printzipio elektrikoiei buruzko ariketak egitea	3	2 h	X	X	Ikasleek irakaslearen argibideen arabera egingo dituzte ariketak. Zalantzak izanez gero, irakasleak banan-banan edo talde osorako argituko dituzte zalantza horiek.	Oinarritzko magnitude elektrikoak ulertzeko eta aplikatzeko.	Apunteak, ordenagailua
J3 Ariketak batera zuzentzea	3	1 h	X	X	Ikasleak banan-banan aterako dira arbelera aurreko jardueran proposatutako ariketak ebaztera. Ikaskideekin alderatuko dira ariketa horietan lortutako emaitzak. Sortzen diren zalantzak irakasleak ebartziko ditu.	Komunikazioa garatzeko eta taldeko eztabaida sortzeko.	Arbela, erretroproiektorea, ordenagailua.



J4 Oinarrizko osagai elektrikoetako buruzko azalpena: <ul style="list-style-type: none"> - Erresistentziak. - Bobinak. - Kondentsadoreak. 	1	1 h	X		Irakasleak labur-labur deskribatuko ditu oinarrizko osagai elektrikoak. Ez du gehiegi sakonduko.	Oinarrizko osagaia elektrikoaren gaineko ikuspegi orokorra eskuratzeko.	Arbela, erretroproiektorea, apunteak eta ordenagailua.
J5 Korrante moten buruzko azalpena: <ul style="list-style-type: none"> - Korrante zuzena. - Korrante alternoa. - Sistema monofasikoak. - Sistema trifasikoak. 	3	1,5 h	X	X	Irakasleak korrante elektrikoaren moten buruzko eztabaida piztuko du ikasleekin. Galdera errazean erantzun dezake, hala nola zer alde dago korrante alternoaren eta zuzenaren artean? Nola sortzen da korrantea? Etxebizitzetan zer motatako korrantea erabiltzen da?	Ikasleek jardueraren gaiaren inguruan duten hasierako ikuspuntua ezagutzeko eta ezagutzen ez dituzten kontzeptuetan sakontzeko.	
J6 Instalazio elektrikoetako neurrien buruzko azalpena: <ul style="list-style-type: none"> - Tentsio-neurriak. - Korrante-neurriak. - Potentzia-neurriak. - Erresistentzia-neurriak. - Jarraitutasuna. 	3	1,5 h	X		Irakasleak magnitude elektrikoaren neurriak berrikusiko ditu, eta gehien erabiltzen diren neurketa elektrikoetako aparatuen erabilera zuzena azalduko du.	Aurretiazko ezagutzak neurketa-aparatu elektrikoaren erabilerekin lotzeko.	Arbela, erretroproiektorea, ordenagailua, multimetrotan analogikoa eta digitala.
J7-E2 Polimetroaren erabilera buruzko praktika gidatua.	3	1,5 h	X	X	Irakasleak multimetrotan analogikoekin eta digitalekin hainbat neurketa egingo ditu aurretik erakitako zenbait instalazio edo maketatan. Ikasleek instalazio horietan egingo dituzte neurketak: tentsioak, korranteak, jarraitutasuna,... Neurtzeko aparatuen erabilera zuzena baloratuko da. Horretarako, zuzentzeko txantiloia erabiliko da.	Aurreko jardueran eskuratutako ezagutzak sendotzeko, eta neurketak egiteko lanetan trebetasuna lortzeko.	Oinarrizko instalazio elektrikoetako maketak, multimetrotan, datuak hartzeko txantiloak.
J8 Magnetismoaren buruzko azalpena.	3	0,5 h	X		Irakasleak magnetismoaren kontzeptuak azalduko ditu. Imanen	Magnetismoari eta elektromagnetismoaren buruzko	Arbela, erretroproiektorea, ordenagailua Magnetismoaren animazioak.



					<p>propietateak, eremu magnetikoaren kontzeptua, eta eremu magnetikoaren eta elektrikoaren arteko lotura nabarmenduko ditu.</p> <p>Arreta berezia jarriko zaio ikasleek funtsezko kontzeptuak ikasteari, jardueraren gaiaren konplexutasun matematikoan sakondu gabe.</p>	oinarrizko ezagutzak eskuratzeko.	
<p>J9-E3 Transformadoreei buruzko azalpena eta praktika gidatua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Motak. - Osaera. - Funtzionamendu-printzipioa. 	1	2 h	X	X	<p>Irakasleak transformadoreei eta horien motei eta ezaugarriei buruzko sarrera txikia egingo du.</p> <p>Ikasleek, binaka jarrita, lan bat (aurkezpen digitala, web-orria) egingo dute hainbat transformadoreen argazkiekin eta horien ezaugarri nagusiekin: tentsioak, potentzia, errefrigerazioa eta aplikazioak.</p>	Transformadoreak eta instalazioetan duten erabilera ezagutzeko, eta taldeko lana sustatzeko.	Katalogoak, aldizkariak, Internet.
<p>J10 Instalazio termiko eta fluidodunetan erabiltzen diren motor motei buruzko azalpena:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Korrante zuzeneko motorrak. - Korrante alternoko motorrak. 	1, 2	3 h	X		<p>Irakasleak instalazioetan erabilitako motorrak azalduko ditu. Hasierako sarreran makina elektriko baten funtzionamendua azalduko du, eta, gero, korrante zuzeneko eta korrante alternoko motorren arteko desberdintasunak azalduko ditu.</p> <p>Ondoren, motorrek instalazioetan duten garrantzia nabarmenduko du, eta instalazio horiek dauden motor motekin lotuko ditu.</p> <p>Azkenik, instalazio motaren arabera</p>	Motorrak instalazio termikoekin eta erabilera egokiarekin lotzeko. Instalazio termiko eta fluidodunetan erabiltzen diren motorrak ezagutzeko.	Apunteak, Power Point, arbela, praktika-gela, motor motak.



					<p>motorra nola hautatzen den erakutsiko du.</p> <p>Jarduera osatzeko, benetako instalazio bat bisita daiteke, edo praktika-gelara joan daiteke.</p>		
J11-E4 Instalazio jakin bat emanik kasuak kasu motor mota egokia hautatzeko praktika autonomoa.	1, 4	2 h		X	<p>Ikasleak instalazio jakin baterako motor egokia hautatzeari buruzko txosten txiki bat egingo du. Honako alderdiak garatu beharko ditu: instalazioaren deskribapena, eskatzen den potentzia erabilgarria, hautatutako motorraren justifikazioa, eta motorraren ezaugarri teknikoak (forma, potentzia, momentu eragilea, kontsumitutako intentsitatea,...).</p>	Aurreko jardueran eskuratutako ezagutzak sendotzeko eta aukeraketa egoki baten garrantzia baloratzeko.	Benetako edo simulatutako instalazioen datuak, katalogoak, Internet, datuak biltzeko txantiloia.
J12-E5 Eroale elektrikoak hautatzeko azalpena eta praktika gidatua.	1, 2, 4	1,5 h	X	X	<p>Irakasleak eroale elektrikoari buruzko azalpen laburra egingo du, eta horietako bakoitza egoki hautatzearen garrantzia nabarmenduko du.</p> <p>Erabilitako eroale motak deskribatuko ditu, baita horien isolamenduetan erabilitako kolore normalizatuak ere. Azkenik, eta adibide zehatzen laguntzarekin, instalazio motaren araberako eroale mota batzuk hautatuko ditu. Ez da eroale horien sekzioaren kalkulurik egingo. Ikasleek eroale elektrikoak identifikatzeko zenbait ariketa egin beharko dituzte.</p>	Eroale elektrikoaren motak identifikatzeko.	Apunteak, katalogoak, Internet, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa.



<p>J13 Zirkuituetako elementuei buruzko azalpena:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Etengailuak. - Kommutagailuak. - Sakagailuak. - Erreleak. 	1	1 h	X		<p>Irakasleak instalazio elektrikoak osatzen dituzten elementuak azalduko ditu, eta horien funtzionamendua argituko du. Elementu horiek erabiltzen dituzten ohiko instalazioen adibideak emango ditu.</p> <p>Mekanismo eta instalazio bakoitzaren funtzionamendua azaltzeko, egindako zenbait maketetan oinarritu ahal izango da.</p>	<p>Aurreko jardueretan eskuratutako ezagutzak sendotzeko, eta elementu horiek erabili dituzten benetako instalazioekin lotzeko –horien funtzionamenduan sakondu gabe–.</p>	<p>Maketa eta instalazio elektrikoak, apunteak.</p>
<p>J14 Oinarrizko instalazio elektrikoetan erabiltzen den sinbologiari buruzko azalpena.</p>	5	0,5 h	X		<p>Irakasleak instalazio elektrikoetan erabiltzen den sinbologiari buruzko azalpen laburra egingo du. Sinbolo horiek egoki erabiltzearen garrantzia nabarmenduko du, eta sinbologia hori benetako instalazioetan aplikatuko du.</p>	<p>Sinbologia elektrikoak ezagutzeko eta aplikatzeko.</p>	<p>Planoak, apunteak, marrazketako txantiloak.</p>
<p>J15-E6 Oinarrizko eskema elektrikoak egiteko praktika autonomoa.</p>	5	2 h		X	<p>Ikasleak eskema elektriko txikiak egingo ditu eta sinbologia elektrikoak erabiliko ditu: etengailua duen argi-puntua, kommutagailua duen argi-puntua, korrante-hartunea, sakagailua duen txirrina.</p>	<p>Sinbologia elektrikoak oinarrizko eskema elektrikoetan aplikatzeko.</p>	<p>Apunteak, marrazketako txantiloak.</p>
<p>E7 Banakako ikasteko prozesua ebaluatzea.</p>		2 h		X	<p>Idatzizko proba baten bitartez, ikaskuntza-prozesuan erdietsi diren lorpenak ebaluatu nahi dira. Jarduera horren helburua da ikaskuntza-prozesua atzeraelikatzea eta, beharrezkoa izanez gero, unitate didaktikoa berrantolatzea, betiere ikasitakoa osatzeko edo sakontzeko jarduerak izango diren egokitzapenen bitartez.</p>	<p>Ikasteko prozesua ebaluatzeko.</p>	



OHARRAK

- Ebaluazioa: unitate honek amaierako notaren % 15eko balioa izango du. Unitate honetan egindako ariketen eta praktiken kalifikazioa honela haztatuko da:
 - E1: % 0
 - E2: % 10
 - E3: % 5
 - E4: % 5
 - E6: % 30
 - E7: % 50
- Unitate didaktikoa gainditzeko 10etik gutxienez 5eko nota lortu beharko da, betiere E6 ebaluazio-jarduera 10etik 5eko notarekin gainditzen bada.
- Unitate hau teoria-gelan eman daiteke osorik.



2. unitate didaktikoa: AUTOMATISMO ELEKTRIKO KABLEATUEN KONFIGURAZIOA

Iraupena: 10 ordu

IE1: Makina elektrikoak eta horiek elikatzeko, babesteko eta kontrolatzeko sistemak hautatzen ditu, eta eskakizun teknikoak aztertu eta sisteman duten funtzioa deskribatzen du.

IE2: Erregulazio eta kontroleko sistema kableatuak konfiguratzeko eta, horretarako, teknologien arabera (pneumatikoa, hidraulikoa, elektrikoak) behar teknikoak aztertzen ditu, eskemak marrazten ditu eta araudia aplikatzen du.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Makina elektrikoak elikatzeko, babesteko eta kontrolatzeko sistemak aplikatzea.
2. Babesteko, elikatzeko eta kontrolatzeko sistemen ezaugarriak zehaztea.
3. Finkatutako ezaugarriak abiapuntu izanik, makinak eta sistema osagarriak identifikatzea.
4. Jarduera egiteko finkatutako denborak errespetatzea.
5. Sistema osatzen duten teknologiak identifikatzea.
6. Sistema automatikoa osatzen duten sekzioak konfiguratzea (indarra, agintea, sarrerak, irteerak, babesak, eta abar).
7. Osagaiak hautatzeko magnitude elektrikoak zehaztea.
8. Hartzaileen ezaugarriak abiapuntu izanik, instalazio elektrikoaren indar-eskema konfiguratzea.
9. Instalazioaren erregulazio- eta kontrol-premien arabera eta erabilitako teknologien arabera zehaztea soluzio teknikoa.
10. Erregulazio- eta kontrol-sistemen elementuak hautatzea.
11. Sistemen eskemak marraztea (eskema elektrikoak, pneumatikoak, hidraulikoak eta abar).

EDUKIAK		Multzoak									
		1	2	3	4	5	6	7	8	9	
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Eskemak interpretatzea. • Babes-gailuak zehaztea. • Konexio-eskemak lantzea. • Behe-tentsioko instalazio elektrikoaren araudia aplikatzea. • Kanalizazioak zehaztea. • Eroale elektrikoak hautatzea. • Osagai osagarriak hautatzea. • Instalazio termikoen eta fluidodunen indar eskemak eta maniobra-eskemak lantzea. 	X	X								
		X	X								



KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Zirkuituetako elementuak: etengailuak, kommutagailuak, sakagailuak, erreleak, kontaktoreak. Segurtasun-baldintzak. Babesak. Motak eta ezaugarriak. Aplikazioak. Elikadura eta kontroleko instalazio elektrikoaren babesak, kanalizazioak, eroaleak eta osagai osagarriak dimentsionatzeko eta hautatzeko kalkulu-metodoak. Aplikatzekoak diren arauak eta erregelamenduak. 					X										
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Eskemetan erabilitako sinbologia ezagutzearen garrantzia baloratzea, irudikatzen den sistema behar bezala ulertzeko. 					X										
JARDUERA					METODOLOGIA					BALIABIDEAK						
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den									
			Ir.	Ik.												
J0 UDaren aurkezpena.		0,5 h	X		Irakasleak unitatearen helburuak, edukiak eta jarduerak aurkeztuko ditu.	Lortu beharreko ikaskuntzako helburuen eta emaitzen ikuspegi argia izateko.	Programazioa.									
E1 Aurretiatzko jakintzei buruzko hasierako ebaluazioko berariazko proba.		0,5 h		X	Ikasleek unitate honetako eduki kontzeptualei buruzko oinarrizko galderak dituen galdera sorta erantzungo dute.	Ikasleen jakintzak identifikatzeko. Lortu beharreko helburuen eta nork bere aurretiatzko jakintzen jakitun izateko.	Galdera sorta.									
J1 Automatismo elektrikoaren konfigurazioari buruzko azalpena: ebakitzeak, babesa eta kommutazioa.	1, 2, 5	1 h	X		Irakasleak ikasgelan azalduko du sistema automatiko kableatu baten elikadura eta kontrola osatzen duten zatiak. Fisikoki edo proiektatutako argazki bidez erakutsiko du aparatu elektrikoa.	Elikadura, babes eta kontrolerako sistemak eta horiek osatzen dituzten elementuak ezagutzeko.	Proiektatutako aurkezpena. Aparatu fisikoak: ebakigailuak, fusibleak, magnetotermikoak, errele termikoak, disjuntoreak, kontaktoreak. Muntatutako makinaren koadro elektrikoak.									
J2 Lantegi bat bisitatzeko, aurreko J1 jardueran ikusitako elementuak ezagutzeko.	1, 2, 5	1 h	X	X	Koadro elektrikoak ikusgarri dituzten lantegietara edo ikastetxeko instalazioetara bisitaldia egitea. Irakasleak aurreko J1 jardueran	Elikatzeko, babesteko eta kontrolatzeko sistemak bereizteko, baita sistema horiek osatzen dituzten elementuak ere.	Makina edo instalazioetako koadro elektrikoak.									



					ikusitako elementuak ezagutzeko ausazko galderak egingo ditu.		
J3 Ebakitzeko eta babesteko aparatuen funtzionamendua, ezaugarriak eta aplikazioa azaltzea: <ul style="list-style-type: none"> - Ebakigailuak. - Fusibleak. - Magnetotermikoak. - Errele termikoak. - Disjuntoreak. - Kontaktoreak. 	1, 2, 5, 6	2 h	X	X	Saio magistrala. Irakasleak aparatuen funtzionamendua, ezaugarriak eta aplikazioak azalduko ditu, eta, horretarako, proiektore batez edo apuntez baliatuko da. Irakasleak apunteak hartuko ditu, eta irakasleak egingo dizkion ausazko galderei erantzun die. Galdera horien bitartez, lortutako ulermena kontrolatuko du.	Automatismo-instalazioetako ebakitze-eta babeste-osagaien ezaugarriak eta aplikazioa ezagutzeko.	Automatismoen liburua. Teleskemak (Schneider) Katalogo teknikoak: Telemecanique, Siemens, Moeller, ABB, ...
J4 Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren argibide teknikoak automatismo elektrikoetako instalazioetan aplikatzeari buruzko erakustaldia: <ul style="list-style-type: none"> - ITC-BT- 19.- Barne-instalazioak edo instalazio hartzaileak. Agindu orokorrak. - ITC-BT- 21.- Barne-instalazioak edo instalazio hartzaileak. Tutu eta kanalizazio babesleak. - ITC-BT- 47.- Hargailuen instalazioa. Motorrak. 	2, 6, 8, 9, 11	1 h	X	X	Argibide tekniko horiek adibide errealean aplikatzeko moduari buruzko erakustaldia egingo da: motor elektrikoak elikatze eroale elektrikoak eta kanalizazioak hautatzea. Irakasleak irakaslearekin batera errepikatuko ditu irakasleak egiten dituen urratsak. Eskola-orduez kanpo egiteko aplikazio-eraketak planteatuko dira.	Makina elektrikoetako elikadurarako eroale elektrikoaren ebakidura eta ezaugarriak zehazteko.	Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa. Kable unipolarrak eta multipolarrak, hainbat isolamendu motarekin Plastikozko eta metalezko tutuak eta kanaletak.
J5-E2 10 kW-ko urtxintxa-kaiolako motor trifasiko bateko abio zuzenaren indarraren eskema konfiguratzeko eta berau osatzen duten elementuak hautatzeko praktika gidatua.	Guztiak	2 h	X	X	Irakasleak praktika egingo du eta ikasleek, aldi berean, urratsak errepikatuko dituzte: <ul style="list-style-type: none"> - Indar-eskema, fusiblearekin, kontaktorearekin eta errele termikoarekin. - Motorraren magnitude elektrikoak katalogoaren bidez eta kalkuluen bidez lortzea: intentsitatea, 	Eskuratutako jakintzak praktika errealean aplikatzeko.	Automatismoen liburua. Teleskemak (Schneider) Fusibleen, kontaktoreen eta errele termikoaren katalogo teknikoak: Telemecanique, Siemens, Moeller, ABB, ...



					tentsioa, potentzia erabilgarria, momentu eragilea. – Aparatu elektrikoak hautatzea: fusiblea, kontaktorea eta errele termikoa. – Eroale elektrikoak eta kanalizazioak kalkulatzea eta hautatzea. – Motorraren konexioa hautatzea eta justifikatzea (Y edo Δ). –		
J6-E3 5 kW-ko urtxintxa-kaiolako motor trifasiko bateko abio zuzenaren indarraren eskema konfiguratzeko eta berau osatzen duten elementuak hautatzeko taldeko praktika autonomoa.	Guztiak	2 h		X	Bi pertsonako taldeak osatuko dira. Ikasleek aurreko praktikan egindako urratsak batera errepikatuko dituzte (taldea), eta horretarako instalazio bat konfiguratzeko azaldutako teknikak aplikatuko dituzte. Motibagarriagoa izan daiteke taldeak berak hautatzea zer makina konfiguratu nahi duen: galdara-aretoko ponpa bat, ura kentzeko ponpa bat, makina-erreminta bat, igogailu bat,...	Automatismo elektrikoak konfiguratzeko autonomia eskuratzeko.	Automatismoen liburuak. Teleskema (Schneider edo antzekoa) Fusibleen, kontaktoreen eta errele termikoen katalogo teknikoak: Telemecanique, Siemens, Moeller, ABB, ...

OHARRAK

- Ebaluazioa: unitate honek amaierako notaren % 5eko balioa izango du. Unitate honetan egindako ariketen eta praktiken kalifikazioa honela haztatuko da:
 - E1: % 0
 - E2: % 30
 - E3: % 70
- Unitate hau teoria-gelan eman daiteke ia osorik. Komeni da ikasleek koadro elektrikoetako instalazioak bisitatu ahal izatea J6-E3 jarduerako ariketa egiten ari diren bitartean.
- J6-E3 jarduerako praktika taldean egiten bada ere, banako lana baloratuko da, taldeko kide bakoitzaren ekarpenak baloratuko dira. Kalifikazioa baterako ebaluazioaren bidez egiteko aukera hartuko da aintzat. Horretarako irakasleak egindako ebaluazio-txantiloia erabiliko da.



3. unitate didaktikoa: AUTOMATISMO ELEKTRIKO KABLEATUEN MUNTAIA

Iraupena: 30 ordu

IE1: Makina elektrikoak eta horiek elikatzeko, babesteko eta kontrolatzeko sistemak hautatzen ditu, eta eskakizun teknikoak aztertu eta sisteman duten funtzioa deskribatzen du.

IE2: Erregulazio eta kontroleko sistema kableatuak konfiguratzeko dituzten behar teknikoak aztertzen ditu, eskemak marrazten ditu eta araudia aplikatzen du.

IE3: Erregulazio- eta kontrol-sistemak muntatzeko lanak egiten ditu, eta instalazioetako planoak eta eskemak interpretatzen ditu.

IE4: Sistema automatikoen funtzionamendua eta segurtasun-baldintzak egiaztatzen ditu eta, horretarako, probak egiten ditu, eta magnitude bereizgarriak eta erreferentziako balioak alderatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Babesteko, elikatzeko eta kontrolatzeko sistemen ezaugarriak zehaztea.
2. Sistemaren instalazioen kokaleku-planoak eta eskema elektrikoak interpretatzea.
3. Sistema osatzen duten teknologien arabera muntaia faseak identifikatzea.
4. Sistema osatzen duten ekipamenduak eta elementuak hautatzea.
5. Esku-hartze bakoitzerako beharrezkoak diren erremintak eta ekipamenduak hautatzea.
6. Planoak abiapuntu izanik eta fabrikatzailearen jarraibideen arabera, kokatzea instalazioa osatzen duten elementuak.
7. Elkarrekin lotzea sistemaren elementu elektroteknikoak.
8. Muntatzeko lanak kalitate eta segurtasuneko baldintzetan egitea.
9. Aplikatzekoak diren araudiak eta erregelamentazioak aplikatzea.
10. Sistema automatikoak muntatzean jarraitu den prozesua dokumentatzea.
11. Instalazioan egin beharreko probak eta neurriak finkatzea.
12. Neurtzeko tresnak behar bezala erabiltzea.
13. Ekipamenduen funtzionamendu-parametroen neurriak eta horien balio nominalak alderatzea.
14. Indarrean dagoen erregelamentazioaren arabera segurtasun-probak egitea.
15. Sistema automatikoaren funtzionamendu-sekuentzia zuzena egiaztatzea.
16. Babes-elementuek anomalien aurrean duten erantzuna egiaztatzea.
17. Prozesuan sor daitezkeen kontingentziak ebaztea.
18. Beharrezko baldintza teknikoak eta segurtasun-baldintzak errespetatuta egitea eragiketarako.
19. Probak eta neurketak egitean jarraitu den prozesua dokumentatzea.



EDUKIAK		Multzoak								
		1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Abian jartzeko eta kontrolatzeko sistemak hautatzea. Instalazio termikoetako koadro elektrikoak muntatzea. Instalazio elektrikoak muntatzea, eta babes, aginte eta seinaleztapeneko elementuen konexioak egitea. Erregulazio-sistemen osagaiak hautatzea. Instalazio termikoetako eskemen funtzionamendua interpretatzea, lantzea eta deskribatzea. Sinbologia. Instalazio termikoen eta fluidodunen erregulazio eta kontroleko sistemak muntatzea eta konexioak egitea. Sistema automatikoak muntatzean jarraitu den prozesua dokumentatzea. Martxan dagoen instalazio termiko eta fluidodun baten gainean neurtzeko eta egiaztatzeko eragiketak egitea erregulazio eta kontroleko sistemetan. Probak eta neurketak egitean jarraitu den prozesua dokumentatzea. 	X	X X X	X X X X X	X X					
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Motorren abiadurak aldatzeko sistema elektronikoak. Instalazioak eta aginte-taula elektrikoak muntatzeko teknikak eta prozedurak. Aginte-mahai elektrikoak: motak eta ezaugarriak. Automatizazio-printzipioak. Instalazio termikoetan aplikatutako prozesu jarraituak. Ezaugarriak. Instalazio termikoetan aplikatutako prozesu sekuentzialak. Ezaugarriak. Neurtzeko tresnak. Probak eta neurketak. Segurtasun-probak. Babes-elementuak. Funtzionamendu-sekuentzia. 	X	X X	X X X	X X X X					
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Instalazioak eta baliabideak erabiltzeko araukiko errespetua. Jarduera egiteko finkatutako denborekiko errespetua. Erreminta arretaz zaintzeko eta behar bezala erabiltzeko interesa. Indarrean dagoen erregelamentazioa aplikatzeko eta segurtasun eta kalitateko araudiak aplikatzeko interesa. Segurtasun-arauak betetzen diren zaintzea. Indarrean dagoen erregelamentazioaren arabeko segurtasun-probak egiteko interesa azaltzea. Probak eta neurketak egitean arreta jartzea, ezarritako protokoloetara egokituz. Neurtzeko tresnen arretaren eta manipulazioaren gaineko interesa azaltzea. 			X X X X	X X X X					



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J0 UDaren aurkezpena.		1 h	X		Irakasleak unitatearen helburuak, edukiak eta jarduerak aurkeztuko ditu.	Lortu beharreko ikaskuntzako helburuen eta emaitzen ikuspegi argia izateko.	Programazioa.
E1 Automatismo elektrikoetako koadroak muntatzen dituen enpresa bati bisitaldia egitea.	2	2 h		X	Ikasleek automatismo elektriko kableatuen instalazioak muntatzeko prozesuaren apunteak hartuko dituzte eta honako puntuak erregistratuko dituzte: muntaia faseak, materialen markak, erremintak, segurtasun-sistemak, kalitatea muntaian, eta abar.	Instalazioetako muntaia-prozesua motibatuzko eta ezagutzeko.	
J1.1 Posizio-detektagailuen funtzionamenduari buruzko azalpena: karrera-amaierak, detektagailu induktiboak, kapazitiboak, fotoelektrikoak eta ultrasoinukoak.	2, 3, 4, 10	0,5 h	X		Irakasleak detektagailu motei buruzko azalpena egingo du: markak, formak, funtzioak, aplikazioak,...	Instalazio termiko eta fluidodunetako detekzio-elementuak ezagutzeko.	Detektagailuen katalogo komertzialak, elementu fisikoak (posizio-detektagailuak).
J1.2-E2 Instalazio termiko eta fluidodunetako prozesuetan hainbat detektagailu aplikatzeko praktika gidatua.		1,5 h		X	Bi pertsoez osatutako taldeetan, instalazio termiko eta fluidodunetan erabiltzen diren detektagailuen marka komertzialei eta aplikazioei buruzko informazioa biltzeko lana banatuko da. Aztertu beharreko detektagailu adina talde egingo dira. Denboraren erdia bateratze-lanari eskainiko zaio, hau da, txosten globala egiteko gainerakoek ekarpenak eta nork bere ekarpenak biltzeari. Talde-lana eta elkarlanerako jarrera baloratuko da.	Detektagailuen informazioa eta aplikazioak aurkitzeko trebetasunak garatzeko. Komunikaziorako eta talde-lanerako trebetasunak garatzeko.	Internet, detektagailuen katalogo komertzialak. Praktiken koadernoak.



<p>J2.1 Motor trifasiko bateko abio zuzeneko aginte- eta indar-zirkuitua diseinatzean eta muntatzean jarraitu beharreko metodoa azaltzea.</p>	<p>Guztiak</p>	<p>2 h</p>	<p>X</p>	<p>Motorra abian jartzea eta gelditzea aukera emango duen etengailu eta kontaktore baten bidez, motor trifasiko bat zuzenean abian jartzeko instalazio bat muntatuko du irakasleak. Honako urratsak egingo ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Indar-eskema (arbela) - Aginte-eskema (arbela) - Elementuen zuinketa. - Muntaia. - Funtzionamenduaren egiaztapena. - Motorrak kontsumitutako intentsitatearen eta fase eta lineako tentsioen neurketa. - Praktikaren dokumentazioa: eskemak, gauzatzeko sekuentzia, materialak, erremintak, probak, neurketak, matxurak. 	<p>Instalazioak muntatzeko eta egiaztatze prozesua ulertzeko.</p>	<p>Aurkezpen proiektatua, automatismoen animazioak (CACEL). Aparatu elektrikoak: magnetotermiko trifasikoa, kontaktore trifasikoa, errele motorbabesa, aginte-sakagailuak, muntaia-plaka, kanaleta, konexio-borneak, 1 mm²-ko kable gorria, 2,5 mm²-ko kable beltza, motor trifasikoa. Neurtzeko aparatuak: pintza anperemetrikoa, multitesterra Erremintak: burkinak eta argiketari-guraizeak. Praktiken koadernoak.</p>
<p>J2.2-E3 Praktika gidatua J2.1 jardueraren inguruan.</p>	<p>Guztiak</p>	<p>2 h</p>	<p>X</p>	<p>Ikasleak, banaka, irakasleak erakutsitakoa berriro egin eta aplikatuko du.</p> <p>Irakasleak ikuskatu, zuzendu eta lagundu egingo du beharrezkoa denean. Eragiketak nola gauzatzen diren irakatsiko du.</p> <p>Praktika amaitzen duten ikasleek atzeratuta dauden ikaskideei lagunduko diete.</p>	<p>Muntaiak egitean eta neurtzeko tresnak eta erremintak erabiltzean trebetasuna eskuratzeko.</p> <p>Kontzeptuak indartzeko eta azalpen-trebetasunak eskuratzeko.</p>	



<p>J3.1 Motor trifasiko baten biratze-noranzkoaren inbertsioaren azalpena.</p>	<p>1, 2, 6, 7, 11, 12, 14</p>	<p>1 h</p>	<p>X</p>		<p>Aurreko praktika baliatuta, irakasleak eskuz egingo du biratzearen inbertsioa, elikadura-kableak aldatuta. Ondoren, biratze-noranzkoaren inbertsioa automatikoki, hau da, kontaktoreen eta sakagailuen bidez, nola egiten den erakutsiko du.</p>	<p>Automatizazio-printzipioen kontzeptuak ulertzeko.</p>	<p>E2 praktika. Aurkezpen proiektatua, automatismoen animazioak (CACEL).</p>
<p>J3.2-E4 Praktika autonomoa, J3.1 jardueraren inguruan.</p>	<p>Guztiak</p>	<p>2 h</p>	<p>X</p>		<p>Motorraren potentzia jakin bat abiapuntu izanik, ikasleek honakoa egingo dute banan-banan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Indar- eta aginte-eskemaren marrazkia. - Materialen aukeraketa: motorra, kontaktoreak, disjuntore motorra, sakagailuak, pilotuak, eroaleak. - Praktika-koadroaren zuinketa eta muntaia. - Funtzionamenduaren egiaztapena. - Tentsioak eta intentsitateen neurketa. - Praktikaren dokumentazioa. <p>Irakasleak ikuskatu, zuzendu eta lagundu egingo du beharrezkoa denean. Eragiketak nola gauzatzen diren irakatsiko du.</p> <p>Praktika amaitzen duten ikasleek atzeratuta dauden ikaskideei lagunduko diete.</p>	<p>Muntaiak egitean eta neurtzeko tresnak eta erremintak erabiltzean trebetasuna eskuratzeko.</p>	<p>Aparatu elektrikoak: magnetotermiko trifasikoa, kontaktoreak, disjuntore motorra, aginte-sakagailuak, muntaia-plaka, kanaleta, konexio-bomeak, 1 mm²-ko kable gorria, 2,5 mm²-ko kable beltza, motor trifasikoa. Neurtzeko aparatuak: pintza anperemetrikoa, multitesterra Erremintak: burkinak eta argiketari-guraizeak. Praktiken koadernoak.</p>

